| BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOAREN HAUTESKUNDE-ERREGELAMENDUA | REGLAMENTO ELECTORAL FEDERACIÓN VIZCAÍNA DE MONTAÑA |
|---|---|
| AURKIBIDEA<br><br>ATARIKO TITULUA<br><br>1. artikulua. Xedea eta aplikazio-eremua<br>2. artikulua. Araubide juridiko ordezkatzailea<br>3. artikulua. Deialdia<br>4. artikulua. Egun baliodunak<br>5. artikulua. Hauteskunde-prozesua zabaltzea<br><br>LEHEN TITULUA<br>HAUTESKUNDE-ORGANOEI BURUZKOA<br><br>I. kapitulua<br>Hauteskunde-batzordea<br><br>6. artikulua. Osaera<br>7. artikulua. Hautaketa<br>8. artikulua. Bateraezintasunak<br>9. artikulua. Agintaldiaren iraupena<br>10. artikulua. Eginkizunak<br>11. artikulua. Hauteskunde-batzordearen erabakiak<br>12. artikulua. Hauteskunde-batzordearen egoitza<br>13. artikulua. Bilkuren aktak<br><br>II. Kapitulua<br>Hauteskunde-mahaia<br><br>14. artikulua. Osaera<br>15. artikulua. Hautaketa | ÍNDICE<br><br>TÍTULO PRELIMINAR<br><br>Artículo 1. Objeto y ámbito de aplicación<br>Artículo 2. Régimen Jurídico supletorio<br>Artículo 3. Convocatoria<br>Artículo 4. Días hábiles<br>Artículo 5. Difusión del proceso electoral<br><br>TÍTULO PRIMERO<br>DE LOS ÓRGANOS ELECTORALES<br><br>Capítulo I Junta<br>Electoral<br><br>Artículo 6. Composición<br>Artículo 7. Elección<br>Artículo 8. Incompatibilidades<br>Artículo 9. Duración mandato<br>Artículo 10. Funciones<br>Artículo 11. Acuerdos de la Junta Electoral<br>Artículo 12. Sede de la Junta Electoral<br>Artículo 13. Actas de las sesiones<br><br>Capítulo II<br>Mesa Electoral<br><br>Artículo 14. Composición<br>Artículo 15. Elección |



Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.
Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SSV0-GQ9E-5OQB-XFH1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus
**LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR:** J0D0Z-T6HX5-QJ8K
**EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA:** https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
**SINATZAILE / FIRMANTE:** GORKA ITURRIAGA MADARIAGA | 2025/01/28 06:27:07

| | |
|---|---|
| 16. artikulua. Bateraezintasunak | Artículo 16. Incompatibilidades |
| 17. artikulua. Agintaldiaren iraupena | Artículo 17. Duración mandato |
| 18. artikulua. Eginkizunak | Artículo 18. Funciones |
| artikulua. Hauteskunde-mahaiaren erabakiak | Artículo 19. Acuerdos de la Mesa Electoral |
| 20. artikulua. Bilkuren aktak | Artículo 20. Actas de las sesiones |
| | |
| BIGARREN TITULUA<br>GOBERNU- ETA ORDEZKARITZA-ORGANOEI ETA HAIEN HAUTAKETARI BURUZKOA | TÍTULO SEGUNDO<br>DE LOS ÓRGANOS DE GOBIERNO Y REPRESENTACIÓN Y SU ELECCIÓN |
| | |
| I. kapitulua<br>Batzar nagusia | Capítulo I<br>Asamblea General |
| | |
| 21. artikulua. Batzar nagusiaren osaera. Hauteskunde-errolda | Artículo 21. Composición de la Asamblea General. Censo Electoral |
| | |
| II. Kapitulua<br>Zuzendaritza-batzordea | Capítulo II Junta<br>Directiva |
| | |
| artikulua. Zuzendaritza-batzordearen osaera | Artículo 22. Composición de la Junta Directiva |
| 23. artikulua. Bateraezintasunak | Artículo 23. Incompatibilidades |
| 24. artikulua. Hautagarriak | Artículo 24. Elegibles |
| artikulua. Hautagai-zerrendak aurkezteko epea | Artículo 25. Plazo de presentación de candidaturas |
| artikulua. Hautagai-zerrendak aurkezteko modua | Artículo 26. Forma de Presentación de candidaturas |
| 27. artikulua. Hautagai-zerrendak onestea | Artículo 27. Admisión de candidaturas |
| 28. artikulua. Artekariak | Artículo 28. Interventores e interventoras |
| 29. artikulua. Hautagai-zerrendarik eza | Artículo 29. Falta de candidaturas |
| artikulua. Hauteskundeetarako batzar nagusia | Artículo 30. Asamblea General de elecciones |
| 31. artikulua. Bozketa | Artículo 31. Votación |


Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SSV0-GQ9E-5OQB-XFH1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| 32. artikulua. Boto-kontaketa<br>33. artikulua. Hauteskundeen emaitzak<br>34. artikulua. Boto-kontaketaren akta<br><br>HIRUGARREN TITULUA<br>HAUTESKUNDE-EGUTEGIA<br><br>35. artikulua. Hauteskunde-mugarriak<br>36. artikulua. Errekurtsoen ondoreak<br><br>LAUGARREN TITULUA ERREKURTSOEN ARAUBIDEA<br><br>artikulua. Hauteskunde-batzordearen erabakiak<br>artikulua. Hauteskunde-mahaiaren erabakiak<br>39. artikulua. Gai erkideak | Artículo 32. Escrutinio<br>Artículo 33. Resultados electorales<br>Artículo 34. Acta del escrutinio<br><br>TÍTULO TERCERO<br>CALENDARIO ELECTORAL<br><br>Artículo 35. Hitos electorales<br>Artículo 36. Efectos de los recursos<br><br>TÍTULO CUARTO RÉGIMEN<br>DE RECURSOS<br><br>Artículo 37. Acuerdos de la Junta Electoral<br>Artículo 38. Acuerdos de la Mesa Electoral<br>Artículo 39. Cuestiones comunes. |
| ATARIKO TITULUA | TÍTULO PRELIMINAR |
| 1. artikulua. Xedea eta aplikazio-eremua | Artículo 1. Objeto y ámbito de aplicación |
| Erregelamendu honek Bizkaiko Mendizale Federazioko gobernu- eta ordezkaritza-organoen hautaketa-prozesu guztiak arautzen ditu, hauteskunde horiek 2024. urtean eta ondorengo udako olinpiar urte guztietan egin behar badira. Halaber, egokia denean, zentsura-mozio konstruktiboak arautzen ditu. | El presente Reglamento regula todos los procesos de elección de los órganos de gobierno y representación de la Federación Bizkaina de Montaña a celebrar durante el año 2024 y durante todos los posteriores años olímpicos de verano, así como las mociones de censura constructivas, en lo que resulte pertinente. |
| 2. artikulua. Araubide juridiko ordezkatzailea | Artículo 2. Régimen Jurídico supletorio |
| 1. Erregelamendu honek aurrez ikusten ez duen guztirako honako hauei erreparatuko zaie: batetik, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren 2/2023 Legeari eta, bestetik, lehenengo lehendakariordearen eta Kultura | 1. En todo lo no previsto en el presente Reglamento se estará a lo dispuesto en la Ley 2/2023, de la Actividad Física y Deporte del País Vasco, y en la Orden de 2 de octubre de 2024 de la Vicepresidenta Primera del |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SSV0-GQ9E-5OQB-XFH1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2024ko urriaren 2ko Aginduari. Agindu horrek euskal kirol federazioen eta lurralde federazioen hauteskunde-erregelamenduak prestatzeko eta hauteskundeak egiteko irizpideak finkatzen ditu. Horrez gain, hauteskundeen arloan legedi hori garatzeko emandako xedapen guztiak kontuan hartuko dira. Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Federazioen 16/2006 Dekretua eta Bizkaiko Mendizale Federazioaren Estatutuak aintzat hartuko dira, baldin eta aurreko lege-arauen edo goi mailagoko beste batzuen aurkakoak ez badira. | Gobierno y Consejera de Cultura y Política Lingüística, por la que se establecen los criterios para la elaboración de reglamentos electorales y para la realización de elecciones de las federaciones deportivas vascas y territoriales, así como en todas las disposiciones que se dicten en desarrollo de éstos en materia electoral; y en el Decreto 16/2006 de Federaciones Deportivas del País Vasco y en los Estatutos de la Federación Bizkaina de Montaña en todo lo que no sean contrarios a las anteriores normas legales o a cualquier otra de rango superior. |
| 2. Modu osagarrian, prozeduraren arloan aplikaziokoak izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezartzen dituen printzipioak; hauteskundeen arloan, berriz, hauteskundeei buruzko legedi orokorrak dituen printzipioak. | 2. Supletoriamente será de aplicación en materia procedimental los principios que se contienen en la Ley 39/2015, 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas; y en materia electoral, serán de aplicación los principios que se contienen en la legislación electoral general. |
| 3. artikulua. Deialdia | Artículo 3. Convocatoria |
| 1. Erregelamendu hau indarrean sartu, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatu, eta federazioaren nahiz Bizkaiko Foru Aldundiaren web orrietan argitaratzen denetik, Bizkaiko Mendizale Federazioaren presidenteak berehala egin beharko du hauteskunde-prozesuaren deialdia federazioaren organoak hautatzeko. | 1. A partir de la entrada en vigor del presente reglamento, es decir, desde su inscripción en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco, y su publicación en las páginas web tanto de la federación como de la Diputación Foral de Bizkaia, el Presidente o Presidenta de la Federación Bizkaina de Montaña deberá convocar inmediatamente un proceso electoral para la elección de los órganos federativos. |
| 2. Deialdirako, Bizkaiko Mendizale Federazioaren presidenteak bere kargua utziko du, eta hauteskunde-batzordeari | 2. Al objeto de proceder a la citada convocatoria, la Presidenta o Presidente de la Federación Bizkaina de Montaña cesará y |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SSV0-GQ9E-5OQB-XFH1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| deialdia luzatuko dio, estatutuek edo erregelamendu honek aurrez ikusitako prozedurari jarraikiz izendatu ostean. Hala, hauteskunde-batzordeak hauteskunde-prozesua hasteko erabakiak hartuko ditu. | procederá a citar a la Junta Electoral, que resulte nombrada conforme al procedimiento previsto en los estatutos o en el presente reglamento, a fin de que adopte los acuerdos necesarios para el inicio del proceso electoral. |
| 3. Deialdia egiten denetik, presidenteak eta zuzendaritza-batzordeak jardunean jarraituko dute zuzendaritza-batzorde berria hautatu arte. | 3. Desde la convocatoria, el Presidente o Presidenta y la Junta Directiva continuarán en funciones, hasta la elección de la nueva Junta Directiva. |
| 4. Egun horrez gero, jendaurrean jarriko dira deialdia eta erregelamendu hau Bizkaiko Mendizale Federazioaren lokaletan eta Federazioaren beraren web orriko iragarkien taula elektronikoan, eta hauteskunde-prozesua behar bezala ezagutzeko neurri osagarriak hartuko dira, datu pertsonalak babesteko indarreko araudiak xedatutakoa errespetatuz. Hala, deialdia eta erregelamendua ahalik eta gehien zabalduko dira. | 4. A partir de dicha fecha quedará públicamente expuesta la convocatoria junto con el presente Reglamento en los locales de la Federación Bizkaina de Montaña así como en el tablón electrónico de anuncios de la página web de la federativa y adoptar aquellas medidas complementarias que resulten precisas para el debido conocimiento del mismo, respetando la normativa vigente en materia de protección de datos de carácter personal, debiendo darse a la misma la máxima difusión. |
| 5. 2024ko Olinpiar Jokoen hauteskunde-prozesua izan ezik, hauteskunde-prozesu bakoitza dagokion olinpiar urteko hurrengo urtarrilaren 31 baino lehen amaituko da. Lehen kasuan, gehienez, 2025eko martxoaren 31 baino lehen bukatuko da. | 5. Con la excepción del proceso electoral correspondiente a los Juegos Olímpicos de 2024 que deberán finalizar como máximo antes del 31 de marzo de 2025, cada respectivo proceso electoral deberá finalizar antes del 31 de enero siguiente al año olímpico que corresponda. |
| 6. Ondoren, udako olinpiar urte bakoitzaren barruan, Bizkaiko Mendizale Federazioaren presidenteak hauteskunde-prozesuaren deialdia egin beharko du. | 6. Posteriormente, dentro de cada año olímpico de verano el Presidente o Presidenta de la Federación Bizkaina de Montaña deberá convocar el correspondiente proceso electoral. |
| 4. artikulua. Egun baliodunak | Artículo 4. Días hábiles |
| 1. Hauteskunde-erregelamendu honetan | 1. Los plazos establecidos en el presente |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SSV0-GQ9E-5OQB-XFH1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| ezartzen diren epeak, berariaz kontrakoa adierazi ezean, egun baliodunei dagozkie, eta, ondorioz, larunbat, igande eta jaiegunak kanpoan geldituko dira. | reglamento electoral se refieren, salvo disposición expresa en contrario, a días hábiles, quedando excluidos los sábados, domingos y festivos. |
| 2. Hauteskundeei begira, abuztua balioduntzat joko da. | 2. El mes de agosto no se considerará hábil a efectos electorales. |
| 3. Hauteskundeen bozketak egiten diren egunetan hauteskunde-prozesua garatzen den federazioaren lurralde-eremuan ez da kirol-proba edo -lehiaketa ofizialik izango. | 3. Los días en que tengan lugar las votaciones electorales no se celebrarán pruebas o competiciones deportivas de carácter oficial en el ámbito territorial de la federación donde se desarrolla el proceso electoral. |
| 5. artikulua. Hauteskunde-prozesua zabaltzea | Artículo 5. Difusión del proceso electoral |
| 1. Hauteskunde-batzordearen eskakizuna da Bizkaiko Mendizale Federazioaren kide guztiek hauteskunde-prozesuaren berri nahikoa izan dutela eta dagozkien eskubideak erabili dituztela bermatzea. | 1. Es deber de la Junta Electoral garantizar que todas las personas miembros de la Federación Bizkaina de Montaña queden suficientemente informadas sobre el proceso electoral y puedan ejercer los derechos que les correspondan. |
| 2. Hauteskunde-prozesua nahikoa zabaltzeko orduan, Bizkaiko Mendizale Federazioaren jarduneko presidenteak hauteskunde-batzordearen zeregina bermatu eta erraztuko du. Xede horrez, eskura jarriko dio Federazioaren giza baliabide eta bitarteko material oro. | 2. El Presidente o Presidenta en funciones de la Federación Bizkaina de Montaña deberá garantizar y facilitar la labor de la Junta Electoral a la hora de conseguir una difusión suficiente del proceso electoral, poniendo a tal fin a su disposición todos los recursos humanos y materiales al alcance la Federación. |
| 3. Hauteskunde-prozesuaren esparruan hartzen diren erabaki eta ebazpen guztiak Bizkaiko Mendizale Federazioaren web orriko iragarkien taula elektronikoan argitaratuko dira, bertan aipatzen diren pertsona fisikoen ohorea eta intimitatea errespetatuz eta hizkuntza nahiz irudi inklusiboak eta ez-sexistak erabiliz. | 3. Todos los acuerdos y resoluciones adoptados en el marco del proceso electoral serán publicados en el tablón electrónico de anuncios de la página web de la Federación Bizkaina de Montaña, respetándose el honor y la intimidad de las personas físicas citadas en las mismas y utilizándose un uso inclusivo y no sexista del lenguaje y de las imágenes. |
| 4. Dagokion Kirol Zuzendaritzari bidaliko zaizkio hauteskunde-erroldaren kopia, | 4. Se remitirá a la Dirección de Deportes correspondiente copia del censo electoral, del |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SSV0-GQ9E-5OQB-XFH1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| hauteskundeen egutegia eta hauteskunde-erregelamendua, modu gehigarrian zabal dezan. | calendario electoral y del Reglamento Electoral para su difusión complementaria. |
| LEHEN TITULUA<br>HAUTESKUNDE-ORGANOEI BURUZKOA | TÍTULO PRIMERO<br>DE LOS ÓRGANOS ELECTORALES |
| I. kapitulua<br>Hauteskunde-batzordea | Capítulo I<br>Junta Electoral |
| 6. artikulua. Osaera | Artículo 6. Composición. |
| 1. Hauteskunde-batzordeko kide hautatu ahalko dira pertsona fisikoak eta juridikoak, baldin eta federazioaren lizentzia badute. Bigarren kasuan, kidea kirol-klubak, kirol-elkarteak edo kapitaleko kirol-sozietateak izendatzen duen pertsona fisikoa izango da. Izendapena egiten duen pertsona juridikoak ezingo du pertsona fisiko hori agintaldi osoan ordeztu, honako kasuetan izan ezik: heriotza, dimisioa, desgaikuntza, gaixotasuna edo pertsona juridikoaren borondatez kanpoko bestelakoa. | 1. Podrán ser elegidas como miembros de la Junta Electoral tanto personas físicas como las personas jurídicas que posean licencia federativa, en cuyo caso será miembro la persona física designada por el club deportivo, agrupación deportiva o sociedad deportiva de capital que haya sido elegida. Tal persona física no podrá ser sustituida por la persona jurídica designante durante todo su mandato, salvo en caso de fallecimiento, dimisión, inhabilitación, enfermedad o cualquier otra causa ajena a la voluntad de la persona jurídica. |
| 2. Estatutuek hala aurrez ikusten dutelako, pertsona bakarreko organoa izan ezean, Bizkaiko Mendizale Federazioaren hauteskunde-batzordea federazioaren beraren estatutuek xedatutako sistemaren arabera hautatuko da, baina estatutuek ez badute aurreikuspenik, hiru (3) kide titularrek osatuko dute eta, gutxienez, beste hiru (3) hautatuko dira ordezko izateko. Horiek guztiak ondoren azaldutako moduan aukeratuko dira. | 2. Salvo que se trate de un órgano unipersonal porque así lo prevean los estatutos, la Junta Electoral de la Federación Bizkaina de Montaña se elegirá de acuerdo al sistema establecido en sus propios estatutos federativos, de forma que, si no hubiera previsión estatutaria, estará compuesta por tres (3) miembros titulares y un número nunca inferior a otros tres (3) elegidos como suplentes que se elegirán como se señale a continuación. |
| 7. artikulua. Hautaketa | Artículo 7. Elección. |
| Hona hemen hauteskunde-batzordea hautatzeko prozedura, estatutuek berez arautzen ez dutenean: | El procedimiento de elección de la Junta Electoral, salvo regulación estatutaria específica, será el siguiente: |



Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SSV0-GQ9E-5OQB-XFH1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| 1. Nolanahi ere, hauteskunde-batzordearen kidea/k eta haien ordezkoak batzar nagusiak hauteskunde-prozesua hasi aurretik egiten duen azken bileran hautatuko ditu hautesleen artean, betiere berehalako hauteskunde-prozesuan hautagai izateko asmorik ez badute eta hautagai-zerrenda aurkeztu ostean, uztera doan batzar nagusiak hautatzen baditu. | 1. En todo caso, la persona o personas que formen parte de la Junta Electoral, y sus suplentes, serán elegidas por la Asamblea General en la última reunión que celebre antes del inicio del proceso electoral, de entre aquellos electores que, no teniendo intención de presentarse como candidatos en el inmediato proceso electoral, presenten su candidatura al efecto y resulten elegidos por la Asamblea General saliente. |
| 2. Xede horrez, batzar nagusiaren deialdia egindakoan, aztergaien zerrendan sartuta egongo da hurrengo olinpiar ziklorako hauteskunde-batzorde berria izendatzea, eta kide izan nahi dutenek idatziz jakinaraziko diote asmo hori Bizkaiko Mendizale Federazioaren Idazkaritza Nagusiari, gutxienez, batzarra egin baino zortzi (8) egun natural lehenago, batzarkideei nahikoa aurrerapenez hautagaien identitatea aditzera eman ahal izateko. | 2. A tal fin, una vez convocada la Asamblea General en cuyo orden del día se incluya la designación de una nueva Junta Electoral para el siguiente ciclo olímpico, las personas interesadas en formar parte de la misma deberán comunicar por escrito su intención en la Secretaría General de la Federación Bizkaina de Montaña con al menos ocho (8) días naturales de antelación a la fecha de celebración de la Asamblea, a fin de poder comunicar a los asambleístas, con la debida antelación, la identidad de las personas candidatas existentes. |
| 3. Batzar nagusian bozkatu ondoren, boto gehienak dituzten hautagai fisikoak edo juridikoak izendatuko dira, eta idatziz jasota utziko da boto-kontaketaren ondoriozko hurrenkera. Hurrenkera bera erabiliko da ordezkoak izendatzeko. Aukeratu beharreko kide-kopurua adina hautagai edo gutxiago badaude, hautaketarik egin gabe izendatuko dira. | 3. Tras votarse en el seno de dicha Asamblea General, la designación recaerá en aquella o aquellas personas candidatas, físicas o jurídicas, que obtengan mayor número de votos, debiendo quedar constancia del orden que obtengan en el escrutinio a efectos de designar, de igual forma, a los vayan a resultar suplentes. Si hubiere igual o menor número de personas candidatas que el de miembros a elegir se procederá a proclamarles sin necesidad de celebrar elección. |
| 4. Hiru (3) postu titularrak eta, gutxienez, hiru | 4. En caso de que no hubiere personas |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SSV0-GQ9E-5OQB-XFH1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| (3) ordezkoak betetzeko nahikoa boluntariorik ez badago, falta direnak zozketa publiko baten bidez hautatuko dira, eta zozketa batzar nagusian bertan egingo da. Halakoetan, hauteskunde-batzordearen kideek kargua onetsi behar dutenez, federatuei eskakizun horretaz salbuetsiko zaie eta ez dute diziplina-erantzukizunik izango, baldin eta zenbait arrazoi egiaztatu direla bide (lana, familia, esparru akademikoa, osasuna edo parekoak), eginkizunak behar bezala betetzea ezinezkoa bazaie. | voluntarias en número suficiente como para cubrir los tres (3) puestos titulares y al menos tres (3) suplentes, se elegirán los que resten por sorteo público a celebrar en el seno de la propia Asamblea General. En este caso, dado que las personas que conformen la Junta Electoral deben aceptar el cargo, quedarán dispensadas de dicha obligación y exentos de responsabilidad disciplinaria aquellas personas federadas que por probadas razones laborales, familiares, académicas, de salud o análogas se encuentren impedidos para cumplir adecuadamente sus funciones. |
| 5. Hauteskunde-batzordearen kide titularren artean hutsak egonez gero, huts horiek ordezkoek beteko dituzte, batzar nagusiak izendatu dituen hurrenkerari jarraikiz. | 5. Las vacantes que se produzcan entre los miembros titulares de la Junta Electoral serán cubiertas por los miembros suplentes, en el orden en que han sido designados por la Asamblea General. |
| 6. Titular gisa izendatutako kideen artean presidentea adinekoena izango da; idazkaria, ordea, gazteena. Horiek izan ezean, postuak ordezkoek beteko dituzte irizpide bera aintzat hartuz. | 6. Entre los miembros designados como titulares actuará como Presidente o Presidenta la persona de mayor edad, y como Secretario o Secretaria la más joven. En caso de ausencia de las mismas, dichos puestos serán suplidos con igual criterio por sus suplentes. |
| 8. artikulua. Bateraezintasunak | Artículo 8. Incompatibilidades |
| Hauteskunde-batzordearen kide izateko hautatu diren pertsonak ezingo dira jardunetako hauteskunde-prozesuaren hautagai-zerrendaren batean sartu. Debekuari eutsiko zaio, nahiz eta hauteskunde-organoaren kide gisa dimititu. | Las personas que hayan sido elegidas para formar la Junta Electoral no podrán integrarse en ninguna de las candidaturas del proceso electoral en curso. Esta prohibición subsistirá aunque dimitan después como miembros de dicho órgano electoral. |
| 9. artikulua. Agintaldiaren iraupena | Artículo 9. Duración del mandato |
| 1. Hauteskunde-batzordearen kideek LAU (4) urteko agintaldia izango dute, hau da, olinpiar | 1. El mandato de las personas miembros de la Junta Electoral será de CUATRO (4) años, es |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SSV0-GQ9E-5OQB-XFH1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| ziklo osoan arituko dira. | decir, todo el ciclo olímpico. |
| 2. Dena den, aurreko denboraldia amaitu baino lehen, batzar nagusiak hauteskunde-batzordea kargugabetu ahalko du eta beste hauteskunde-batzorde bat izendatu ere bai. | 2. No obstante, antes de la finalización de período anterior la Asamblea General podrá destituir la Junta Electoral y nombrar otra Junta Electoral antes de la conclusión del período anterior. |
| 3. Nolanahi ere, uztera doan hauteskunde-batzordeak jardunean jarraituko du batzorde berria izendatu arte. | 3. En todo caso, la Junta Electoral saliente seguirá en funciones hasta el nombramiento de una nueva. |
| 10. artikulua. Eginkizunak | Artículo 10. Funciones |
| 1. Bizkaiko Mendizale Federazioaren hauteskunde-batzordeak hauteskunde-prozesua bultzatuko du, behar bezala garatzen dela zaintzeaz gain. Azken finean, hauteskunde-prozesua zuzenbidearekin bat datorrela bermatuko du. | 1. La Junta Electoral de la Federación Bizkaina de Montaña es el órgano encargado de impulsar el proceso electoral y de velar por su correcto desarrollo, garantizando en última instancia federativa el ajuste a Derecho del correspondiente proceso electoral. |
| Hona hemen hauteskunde-batzordearen eginkizunak:<br>Bidezkoa denean, hauteskunde-errolda eta hauteskunde-egutegia onestea.<br>Aurkeztutako hautagai-zerrendak edo, hala badagokio, batzar nagusiaren kide izateko eskakizunak betetzen dituzten kirol-klubak eta -elkarteak onetsi, aldarrikatu eta argitaratzea.<br>c) Hauteskunde-mahaia izendatzea.<br>Aurkezten diren aurkaratzeak, erreklamazioak eta eskeak ebaztea, bai eta hauteskunde-mahaiaren erabakien aurkako errekurtsoak ere.<br>Hauteskunde-arauak interpretatzea eta antzeman daitezkeen arau-hutsuneak ordeztea.<br>f) Hautagaientzako boto-paperen, gutun-azalen, inprimakien eredu ofizialak eta antzeko | La Junta Electoral realizará las siguientes funciones:<br>Aprobar, en su caso el censo electoral y el calendario electoral.<br>Admitir, proclamar y publicar las candidaturas presentadas, o en su caso, los clubes y agrupaciones deportivas que cumplan los requisitos para pertenecer a la asamblea general.<br>c) Designar la Mesa Electoral.<br>Resolver las impugnaciones, reclamaciones y peticiones que se le presenten y los recursos contra las decisiones de la Mesa Electoral.<br>Interpretar los preceptos electorales y suplir las lagunas normativas que se puedan detectar.<br>f) Aprobar los modelos oficiales de las papeletas de voto, sobres, impresos para |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SSV0-GQ9E-5OQB-XFH1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| dokumentuak onestea.<br>Federazioaren egoitzatik kanpoko lokaletan hauteskunde-egintzak gauza daitezen baimentzea.<br>Formulatzen dizkioten kontsultak ebaztea.<br>Diziplina-batzordeari hauteskunde-prozesuarekin lotutako gertakarien berri ematea, baldin eta diziplinaren arloan arau-hauste bat eragin badezakete.<br>Hautagai-zerrenda hautatuak aldarrikatzea.<br>Hauteskundeei zuzenean eragiten dien beste edozein gai hauteskunde-batzordeak ebatziko du, baldin eta hauteskunde-erregelamendu honetan ez badago, aurreikuspenik egin ez delako edo lehendik daudenak interpretatu behar direlako. | candidaturas y documentos análogos.<br>Autorizar la realización de los actos electorales en locales diferentes a la sede de la federación respectiva.<br>Resolver las consultas que se le formulen.<br>Informar al comité disciplinario correspondiente sobre aquellos hechos relacionados con el proceso electoral que pudieran ser constitutivos de infracción disciplinaria.<br>j) Proclamar las candidaturas electas.<br>Cualesquiera otras cuestiones que afecten directamente al desarrollo de las elecciones y que pudieran suscitarse, no recogida en el presente reglamento electoral, por inexistencia de previsión al respecto o por motivo de interpretación de las existentes, serán resueltos por la Junta Electoral. |
| 3. Gainera, hauteskunde-batzordeari dagokio, bidezkoa bada, kirol-klub ala -elkarte bakoitzari dagokion boto haztatua aplikatzea, estatutuek zehaztutakoaren arabera. | 3. Asimismo corresponde a la Junta Electoral aplicar, en su caso, el voto ponderado que corresponde a cada club deportivo o agrupación deportiva, de acuerdo con lo establecido por los estatutos. |
| 4. Bere eginkizunen jardunean hauteskunde-batzordeak, hala badagokio, Bizkaiko Mendizale Federazioak ematen dion aholkularitza juridikoaren laguntza jaso dezake, giza baliabide eta bitarteko material guztiak eskura jartzeaz gain, hauteskunde-prozesua behar bezala egiteko eta nahikoa zabaltzeko. | 4. En el desempeño de sus funciones la Junta Electoral podrá ser asistida por la asesoría jurídica que le brinde, en su caso, la Federación Bizkaina de Montaña, quien igualmente pondrá a su disposición todos sus recursos humanos y materiales al objeto de posibilitar un correcto proceso electoral y conseguir una difusión suficiente del mismo. |
| 11. artikulua. Hauteskunde-batzordearen erabakiak | Artículo 11. Acuerdos de la Junta Electoral. |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SSV0-GQ9E-5OQB-XFH1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| Pertsona bakarreko organoen kasuan izan ezik: | Salvo en el caso de los órganos unipersonales: |
| 1. Balioz eratzeko, gutxienez bi (2) kide egongo dira aurrez aurre. | 1. Para su válida constitución será necesaria la presencia de, al menos, dos (2) de sus miembros. |
| 2. Hauteskunde-batzordearen erabakiak betearazleak dira, eta botoen gehiengoz hartuko dira. | 2. Las decisiones de la Junta Electoral son ejecutivas y se adoptarán por mayoría de votos. |
| 3. Berdinketaren kasuan, nagusi izango da presidentearen kalitatezko botoa, eta gehiengoaren aurkako botoek, betiere izenez arrazoitzen badira, zuzenbidearen aurkako erabakiak hartzean izan daitezkeen erantzukizunez salbuetsiko dute. | 3. En caso de empate, prevalecerá el voto de calidad de la Presidenta o Presidente, y los votos contrarios a la mayoría, siempre que sean nominativamente motivados, eximirán de la responsabilidad que pudiere derivarse de la adopción de acuerdos contrarios a Derecho. |
| 4. Ahal denean, erabakiak banan-banan jakinaraziko zaizkie interesdunei, eta, nolanahi ere, zabaltzeko argitaratuko dira indarreko hauteskunde-araudiak xedatutakoaren arabera. | 4. Siempre que sea posible, los acuerdos deberán ser notificados individualizadamente a los interesados, y se publicarán, en todo caso, en la forma de difusión prevista en la normativa electoral vigente. |
| 5. Era berean, kideei ordaindu ahalko zaie, izendatu baino lehen Bizkaiko Mendizale Federazioko batzar nagusiak erabakiz gero. | 5. Asimismo, sus miembros podrán ser remunerados si así lo acuerda la Asamblea General de la Federación Bizkaina de Montaña previamente a su designación. |
| 12. artikulua. Hauteskunde-batzordearen egoitza | Artículo 12. Sede de la Junta Electoral |
| Hauteskunde-batzordeak egoitza Bizkaiko Mendizale Federazioaren helbidean izango du. Bertan egingo ditu bilerak, salbuespenezko kasuetan izan ezik. Halakoetan, kideek aho batez erabakitzen dutenean, bilerak beste lokal batzuetan egingo dira. | La Junta Electoral tendrá su sede en el domicilio social de la Federación Bizkaina de Montaña en la que mantendrá sus reuniones, excepto en aquellos supuestos excepcionales en los que, mediando acuerdo unánime de sus componentes, se mantengan en otros locales. |
| 13. artikulua. Bilkuren aktak | Artículo 13. Actas de las sesiones |
| 1. Hauteskunde-batzordeak bilerak egiten dituenean, batzordeko idazkariak akta bana | 1. De cuantas sesiones celebre la Junta Electoral se levantará la correspondiente acta |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SSV0-GQ9E-5OQB-XFH1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| idatziko du, gerora, bertaratu diren kide guztiek sinatzeko. | por el Secretario de la Junta, que será firmada por todos los miembros asistentes. |
| 2. Urteko edo denboraldiko akten multzoarekin akten liburua egingo da. PDF formatuko fitxategi bakarra izango da, orriak zenbatuko zaizkio eta azala erantsiko zaio liburuak duen izenburuarekin, ekitaldia eta erakundearen izena barne, Eusko Jaurlaritzako honako helbide elektroniko honetako Liburuak/Liburuak Legeztatzea atalean igota uzteko: https://www.euskadi.eus/erregistroa/kirol-erakundeen-erregistroa/web01-tramite/eu/. | 2. Con el conjunto de actas anuales o el correspondiente a la temporada, se formará el Libro de Actas, que consistirá en un archivo único en formato PDF, con hojas numeradas y portada con el título del libro que se trata, ejercicio al que se refiere y nombre de la Entidad, el cual se subirá a la sede electrónica del Gobierno Vasco en la dirección https://www.euskadi.eus/registro/registro-entidades-deportivas/web01-tramite/es/, en el apartado Libros/Legalización de Libros. |
| II. Kapitulua<br>Hauteskunde-mahaia | Capítulo II<br>Mesa Electoral |
| 14. artikulua. Osaera | Artículo 14. Composición. |
| 1. Hauteskunde-mahaiko kide hautatu ahalko dira pertsona fisikoak eta pertsona juridikoak. Bigarren kasuan, mahaiko kidea hautatu den kirol-klubak, kirol-elkarteak edo kapitaleko kirol-sozietateak izendatutako pertsona fisikoa izango da. Izendapena egiten duen pertsona juridikoak ezingo du pertsona fisiko hori agintaldi osoan ordeztu, honako kasuetan izan ezik: heriotza, dimisioa, desgaikuntza, gaixotasuna edo pertsona juridikoaren borondatez kanpoko bestelakoa. | 1. Podrán ser elegidas como miembros de la Mesa Electoral tanto personas físicas como personas jurídicas, en cuyo caso será miembro de la Mesa la persona física designada por el club deportivo, agrupación deportiva o sociedad deportiva de capital que haya sido elegida. Tal persona física no podrá ser sustituida por la persona jurídica designante durante todo su mandato, salvo en caso de fallecimiento, dimisión, inhabilitación, enfermedad o cualquier otra causa ajena a la voluntad de la persona jurídica. |
| 2. Estatutuek hala aurrez ikusten dutelako, pertsona bakarreko organoa izan ezean, Bizkaiko Mendizale Federazioaren hauteskunde-mahaia federazioaren beraren estatutuek zehaztutako sistemaren arabera hautatuko da. Dena den, sistemarik ez badago, hiru (3) kide titularrek osatuko dute, eta, | 2. Salvo que se trate de un órgano unipersonal porque así lo prevean los estatutos, la Mesta Electoral de la Federación Bizkaina de Montaña se elegirá de acuerdo al sistema establecido en sus propios estatutos federativos, de forma que si no lo estuviera estará compuesta por tres (3) miembros |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SSV0-GQ9E-5OQB-XFH1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| gutxienez, beste hiru (3) aukeratuko dira ordezko gisa, ondoren azaldutakoari jarraikiz. | titulares y un número nunca inferior a otros tres (3) elegidos como suplentes que se elegirán como se señale a continuación. |
| 15. artikulua. Hautaketa | Artículo 15. Elección |
| 1. Bizkaiko Mendizale Federazioaren hauteskunde-mahaiko kideak eta ordezkoak hauteskunde-batzordeak hautatuko ditu zozketaz hautagai-zerrendetan sartzen ez diren hautesleen artetik. | 1. Las personas que constituyan la Mesa Electoral de la Federación Bizkaina de Montaña, y sus suplentes, serán elegidos por la Junta Electoral mediante sorteo entre aquellas personas electoras que no formen parte de ninguna candidatura. |
| 2. Hauteskunde-mahaiko kideek kargua onetsi behar dutenez, federatuei eskakizun horretaz salbuetsiko zaie eta ez dute diziplina-erantzukizunik izango, baldin eta zenbait arrazoi egiaztatu direla bide (lana, familia, esparru akademikoa, osasuna edo parekoak), eginkizunak behar bezala betetzea ezinezkoa bazaie. | 2. Dado que las personas que conformen la Mesa Electoral deben aceptar el cargo, quedarán dispensadas de dicha obligación y exentos de responsabilidad disciplinaria aquellas personas federadas que por probadas razones laborales, familiares, académicas, de salud o análogas se encuentren impedidos para cumplir adecuadamente sus funciones. |
| 3. Hauteskunde-mahaiaren kide titularren artean hutsak egonez gero, huts horiek ordezkoek beteko dituzte, hauteskunde-batzordeak izendatu dituen hurrenkerari jarraikiz. | 3. Las vacantes que se produzcan entre los miembros titulares de la Mesa Electoral serán cubiertas por los miembros suplentes, en el orden en que han sido designados por la Junta Electoral. |
| 4. Pertsona bakarreko organoen kasuan izan ezik, titular gisa izendatutako kideen artean presidentea adinekoena izango da; idazkaria, ordea, gazteena. Horiek izan ezean, postuak ordezkoek beteko dituzte irizpide bera aintzat hartuz. | 4. Salvo en el caso de los órganos unipersonales, entre los miembros designados como titulares actuará como Presidente o Presidenta la persona de mayor edad, y como Secretario o Secretaria la más joven. En caso de ausencia de las mismas, dichos puestos serán suplidos con igual criterio por sus suplentes. |
| 16. artikulua. Bateraezintasunak | Artículo 16. Incompatibilidades |
| 1. Hauteskunde-mahaiaren kide izateko hautatu diren pertsonak ezingo dira jardunetako hauteskunde-prozesuaren | 1. Las personas que hayan sido elegidas para formar la Mesa Electoral no podrán integrarse en ninguna de las candidaturas del proceso |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SSV0-GQ9E-5OQB-XFH1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| hautagai-zerrendaren batean sartu. Debekuari eutsiko zaio, nahiz eta hauteskunde-organoaren kide gisa dimititu. | electoral en curso. Esta prohibición subsistirá aunque dimitan después como miembros de dicho órgano electoral. |
| 2. Hauteskunde-mahaiaren kide izateko hautatu diren pertsonak ezingo dira jardunetako hauteskunde-prozesuaren hautagai-zerrendaren batean sartu. | 2. Las personas que hayan sido elegidas para formar la Mesa Electoral no podrán formar parte de ninguna de las candidaturas del proceso electoral en curso. |
| 17. artikulua. Agintaldiaren iraupena | Artículo 17. Duración del mandato |
| 1. Hauteskunde-mahaiaren kideek LAU (4) urteko agintaldia izango dute, hau da, olinpiar ziklo osoan arituko dira. | 1. El mandato de las personas miembros de la Mesa Electoral será de CUATRO (4) años, es decir, todo el ciclo olímpico. |
| 2. Dena den, aurreko denboraldia amaitu baino lehen, hauteskunde-batzordeak hauteskunde-mahaia kargugabetu ahalko du eta beste hauteskunde-mahai bat izendatu ere bai. | 2. No obstante, antes de la finalización de período anterior la Junta Electoral podrá destituir la Mesa Electoral y nombrar otra Mesa Electoral antes de la conclusión del período anterior. |
| 3. Nolanahi ere, uztera doan hauteskunde-mahaiak jardunean jarraituko du mahai berria izendatu arte. | 3. En todo caso, la Mesa Electoral saliente seguirá en funciones hasta el nombramiento de una nueva. |
| 18. artikulua. Eginkizunak | Artículo 18. Funciones |
| 1. Federazio bakoitzaren hauteskunde-mahaiak bozketa eta boto-kontaketa behar bezala egiten direla zainduko du. | 1. La Mesa Electoral de cada federación es el órgano encargado de velar por el correcto desarrollo de las fases de votación y escrutinio. |
| Hona hemen hauteskunde-mahaiaren eginkizunak:<br>Bozketa bakoitza behar bezala gauzatzen dela zaintzea eta, horretarako, boto-emaile bakoitzaren identitatea eta hautesle izanaren baldintza egiaztatzea.<br>Emandako botoen baliozkotasuna ebaztea.<br>c) Botoak zenbatzea.<br>Bozketekin eta boto-kontaketarekin zerikusia duen beste edozein gorabehera | La Mesa Electoral realizará las siguientes funciones:<br>Velar por el correcto desarrollo de cada votación, comprobando la identidad de cada votante y su condición de elector o electora.<br>Resolver sobre la validez de los votos emitidos.<br>c) Efectuar el escrutinio de los votos.<br>Resolver cualquier otra incidencia relacionada con las votaciones y con el |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SSV0-GQ9E-5OQB-XFH1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| ebaztea. | escrutinio. |
| 3. Hauteskunde-mahaiak, bidezkoa izanez gero, dagokion kirol-federazioak ematen dion aholkularitza juridikoaren laguntza izan dezake. | 3. La Mesa Electoral podrá ser asistida por la asesoría jurídica que le brinde, en su caso, la federación deportiva correspondiente. |
| 4. Bere eginkizunen jardunean hauteskunde-mahaiak, hala badagokio, Bizkaiko Mendizale Federazioak ematen dion aholkularitza juridikoaren laguntza jaso dezake, giza baliabide eta bitarteko material guztiak eskura jartzeaz gain, hauteskunde-prozesua behar bezala egiteko eta nahikoa zabaltzeko. | 4. En el desempeño de sus funciones la Mesa Electoral podrá ser asistida por la asesoría jurídica que le brinde, en su caso, la Federación Bizkaina de Montaña quien pondrá a su disposición todos sus recursos humanos y materiales al objeto de posibilitar un correcto proceso electoral y conseguir una difusión suficiente del mismo. |
| 19. artikulua. Hauteskunde-mahaiaren erabakiak. | Artículo 19. Acuerdos de la Mesa Electoral. |
| Pertsona bakarreko organoa ez bada, hona hemen hauteskunde-mahaiak erabakiak hartzeko izango duen araubidea: | Salvo que se trate de un órgano unipersonal, el régimen relativo a los acuerdos de la Mesa Electoral será el siguiente: |
| 1. Balioz eratzeko, gutxienez bi kide egongo dira aurrez aurre. | 1. Para su válida constitución será necesaria la presencia de, al menos, dos de sus miembros. |
| 2. Hauteskunde-mahaiaren erabakiak betearazleak dira, eta botoen gehiengoz hartuko dira. | 2. Las decisiones de la Mesa Electoral son ejecutivas y se adoptarán por mayoría de votos. |
| 3. Berdinketaren kasuan, nagusi izango da presidentearen kalitatezko botoa, eta gehiengoaren aurkako botoek, betiere izenez arrazoitzen badira, zuzenbidearen aurkako erabakiak hartzean izan daitezkeen erantzukizunez salbuetsiko dute. | 3. En caso de empate, prevalecerá el voto de calidad de la Presidenta o Presidente, y los votos contrarios a la mayoría, siempre que sean nominativamente motivados, eximirán de la responsabilidad que pudiere derivarse de la adopción de acuerdos contrarios a Derecho. |
| 4. Ahal denean, erabakiak banan-banan jakinaraziko zaizkie interesdunei, eta, nolanahi ere, zabaltzeko argitaratuko dira indarreko hauteskunde-araudiak xedatutakoaren arabera. Premiazkoa bada, eta betiere kideek | 4. Siempre que sea posible, los acuerdos deberán ser notificados individualizadamente a los interesados, y se publicarán, en todo caso, en la forma de difusión prevista en la normativa electoral vigente. En caso de |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SSV0-GQ9E-5OQB-XFH1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| berariaz onetsi ostean, jasotzea bermatuta badago, hauteskunde-mahaiak erabakiak helbide elektronikoa, faxa, konferentzia, bideokonferentzia eta pareko bitarteko teknikoak erabiliz jakinarazi ahalko ditu. | urgencia, y siempre que exista garantía de recepción y así lo acepten expresamente sus miembros, la Mesa Electoral podrá comunicar sus decisiones mediante la utilización de correo postal, correo electrónico, fax, conferencia, videoconferencia y medios técnicos análogos. |
| 5. Azkeneko kasu horretan, hauteskunde-mahaiko idazkariak, Bizkaiko Mendizale Federazioko administrazio-zerbitzuen laguntzaz, akta idatziko du, eta gutun-azalen, faxen eta/edo pareko dokumentuen originalak erantsiko dizkio. | 5. En este último supuesto, la persona que ostente la Secretaría de la Mesa Electoral redactará, con el auxilio de los servicios administrativos de la Federación Bizkaina de Montaña, el acta correspondiente acompañando a la misma los originales de las cartas, faxes y/o documentos análogos. |
| 6. Era berean, kideei ordaindu ahalko zaie, izendatu baino lehen Bizkaiko Mendizale Federazioko batzar nagusiak erabakiz gero. | 6. Asimismo, sus miembros podrán ser remunerados si así lo acuerda la Asamblea General de la Federación Bizkaina de Montaña previamente a su designación. |
| 20. artikulua. Bilkuren aktak | Artículo 20. Actas de las sesiones. |
| Pertsona bakarreko organoa ez bada, hona hemen hauteskunde-mahaiak erabakiak hartzeko izango duen araubidea: | Salvo que se trate de un órgano unipersonal, el régimen relativo a los acuerdos de la Mesa Electoral será el siguiente: |
| 1. Hauteskunde-mahaiak bilerak egiten dituenean, batzordeko idazkariak akta bana idatziko du, gerora, bertaratu diren kide guztiek sinatzeko. | 1. De cuantas sesiones celebre la Mesa Electoral se levantará la correspondiente acta por el Secretario de la Junta, que será firmada por todos los miembros asistentes. |
| 2. Urteko edo denboraldiko akten multzoarekin akten liburua egingo da. PDF formatuko fitxategi bakarra izango da, orriak zenbatuko zaizkio eta azala erantsiko zaio liburuak duen izenburuarekin, ekitaldia eta erakundearen izena barne, Eusko Jaurlaritzako honako helbide elektroniko honetako Liburuak/Liburuak Legeztatzea atalean igota uzteko: | 2. Con el conjunto de actas anuales o el correspondiente a la temporada, se formará el Libro de Actas, que consistirá en un archivo único en formato PDF, con hojas numeradas y portada con el título del libro que se trata, ejercicio al que se refiere y nombre de la Entidad, el cual se subirá a la sede electrónica del Gobierno Vasco en la dirección https://www.euskadi.eus/registro/registro- |



Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SSV0-GQ9E-5OQB-XFH1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| https://www.euskadi.eus/erregistroa/kirol-erakundeen-erregistroa/web01-tramite/eu/. | entidades-deportivas/web01-tramite/es/, en el apartado Libros/Legalización de Libros. |
| BIGARREN TITULUA GOBERNU- ETA ORDEZKARITZA-ORGANOEI ETA HAIEN HAUTAKETARI BURUZKOA | TÍTULO SEGUNDO<br>DE LOS ÓRGANOS DE GOBIERNO Y REPRESENTACIÓN Y SU ELECCIÓN |
| I. kapitulua<br>Batzar nagusia | Capítulo I<br>Asamblea General |
| 21. artikulua. Batzar nagusiaren osaera. Hauteskunde-errolda | Artículo 21. Composición de la Asamblea General. Censo Electoral |
| 1. Bizkaiko Mendizale Federazioaren batzar nagusia Bizkaiko kirol-klub, kirol-elkarte eta kirol arloko sozietate anonimo guztiek osatuko dute, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatuta egonda, Bizkaiko Mendizale Federazioari atxikitzea berariaz eskatu badute eta, aldi berean, hauteskundeen denboraldian eta aurreko berehalako denboraldian gutxienez 15 lizentzia izan badituzte, 1 lehiaketa federatuetan parte hartu badute eta/edo estatutuek aurrez ikusitako kirol-jardueraren eskakizunak betetzen badituzte. | 1. La Asamblea General de la Federación Bizkaina de Montaña estará formada por todos los clubes deportivos bizkainos, agrupaciones deportivas Bizkainas y sociedades anónimas deportivas bizkainas que, encontrándose inscritos en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco, hayan solicitado expresamente su adscripción a la Federación Bizkaina de Montaña y que, a su vez, en la temporada de elecciones así como en la temporada inmediatamente anterior hayan tenido un mínimo de 15 licencias, hayan participado en 1 competiciones federadas y/o cumplan el requisito de actividad deportiva previsto, en su caso, en los estatutos. |
| 2. Nolanahi ere, hauteskunde-prozesua hasten denean hartuko da hauteskundeen denboralditzat. | 2. En todo caso se computará como temporada de celebración de elecciones la temporada en la que se da inicio al proceso electoral. |
| 3. Hauteskunde-batzordeak ofizioz adieraziko du aurreko atalean aurrez ikusten diren eskakizunak betetzen dituzten kirol-klubak, kirol-elkarteak eta kirol arloko sozietate anonimoak eta, ondorioz, batzar nagusiaren kide izango direnak. | 3. La Junta Electoral proclamará de oficio los clubes deportivos, agrupaciones deportivas y sociedades anónimas deportivas que cumplan con los requisitos previstos en el apartado primero anterior y, por tanto, formen parte de la nueva Asamblea General. |
| 4. Batzar nagusiko kide den pertsona | 4. Si alguna persona jurídica, miembro de la |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SSV0-GQ9E-5OQB-XFH1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| juridikoren batek hautatua izateko baldintza galtzen badu, zuzenean baja emango zaio. | Asamblea General, perdiera la condición por la que fue elegida causará baja automáticamente en la misma. |
| 5. Batzar nagusian kirol-klub, kirol-elkarte eta kirol arloko sozietate anonimo kide bakoitzari dagokion boto-kopurua, estatutuen arabera, honako hau da:<br><br>15 eta 200 federatu artean: 2 boto<br>201 eta 400 federatu artean: 3 boto<br>400 federatu baino gehiago: 5 boto | 5. El número de votos que corresponde emitir a cada club deportivo, agrupación deportiva o sociedad anónima deportiva miembro de la Asamblea General será el siguiente, de acuerdo con los estatutos:<br>Entre 15 y 200 federados/as: 2 votos<br>Entre 201 y 400 federados/as: 3 votos<br>Más de 400 federados/as: 5 votos |
| 6. Boto haztatua zehazteko orduan, batzar nagusiko kideen kirol-egoera aldatzen denean, lau urteko agintaldian ez du boto haztatua aldatzera behartuko. Berriz kalkulatuko da kirol-kluben, kirol-elkarteen eta kirol arloko sozietate anonimoen bajak kontuan hartuta. Halakoetan, kirol-kluben, kirol-elkarteen eta kirol arloko sozietate anonimoen bajak kirol-klub, kirol-elkarte eta kirol arloko sozietate anonimo berriek bete ahalko dituzte, baldin eta, unean-unean, hauteskunde-batzordeak definitu duen irizpideari jarraikiz, alta emanda badaude. | 6. La modificación de la situación deportiva de los miembros de la Asamblea General en orden al establecimiento del voto ponderado no obligará a modificar el citado voto ponderado a lo largo del mandato de cuatro años. Únicamente se recalculará el mismo en caso de bajas de los clubes deportivos, agrupaciones deportivas y sociedades anónimas deportivas. En este caso, las bajas de los clubes deportivos, agrupaciones deportivas y sociedades anónimas deportivas podrán ser cubiertas por los nuevos clubes deportivos, agrupaciones deportivas y sociedades anónimas deportivas que se hayan dado de alta con el criterio que establezca, en cada momento, la Junta Electoral. |
| 7. Batzar nagusiko pertsona juridiko oro pertsona fisiko bakarrak ordezkatuko du, batzar nagusian esleitu zaion boto-kopurua gorabehera. | 7. Toda persona jurídica que forme parte de la Asamblea General estará representada solo por una persona física con independencia del número de votos que tenga adjudicada en el seno de la misma. |
| II. Kapitulua<br>Zuzendaritza-batzordea | Capítulo II<br>Junta Directiva |
| 22. artikulua. Zuzendaritza-batzordearen | Artículo 22. Composición de la Junta Directiva |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SSV0-GQ9E-5OQB-XFH1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| osaera | |
| Bizkaiko Mendizale Federazioaren zuzendaritza-batzordea betiere kopuru bakoitiak osatuko du. Gutxienez, BOST (5) kide izango dira, honako gutxieneko osaeraren arabera:<br>a) Epaile bat (1)<br>b) Kirolari bat (1)<br>c) Teknikari bat (1)<br>d) Kirol-klub edo -elkarte bat (1)<br>Edozein kirol-estamentuko batzordekide bat (1) | La Junta Directiva de la Federación Bizkaina de Montaña estará integrada siempre por un número impar que, como mínimo, será de CINCO (5) personas que deberán responder a la siguiente composición mínima:<br>a) Un (1) Juez o una (1) Jueza<br>b) Un (1) Deportista o una (1) Deportista<br>c) Un (1) Técnico o una (1) Técnica<br>d) Un (1) club o agrupación deportiva.<br>Una (1) Vocalía perteneciente a cualquiera de los estamentos deportivos |
| 2. Bizkaiko Mendizale Federazioaren zuzendaritza-batzordea batzar nagusiak hautatuko du zerrenda itxien bidez. | 2. La Junta Directiva de la Federación Bizkaina de Montaña deberá ser elegida mediante listas cerradas por la Asamblea General. |
| Zuzendaritza-batzorderako hautagai-zerrendek argi eta garbi identifikatuko dituzte honako kargu hauek:<br>a) Presidentea<br>b) Presidenteordea<br>c) Idazkaria<br>d) Diruzaina | Las candidaturas a la Junta Directiva deberán identificar claramente los siguientes cargos:<br>a) Presidente o Presidenta<br>b) Vicepresidente o vicepresidenta.<br>c) Secretario o Secretaria<br>d) Tesorero o Tesorera |
| 23. artikulua. Bateraezintasunak | Artículo 23. Incompatibilidades |
| 1. Ezingo da inolaz ere Bizkaiko Mendizale Federazioaren presidente izan, aldi berean, kirol-klubeko, kirol-elkarteko edo kapitaleko kirol-sozietateko presidentea bada. | 1. En ningún caso se podrá ser Presidente o Presidenta de la Federación Bizkaina de Montaña y de un club deportivo, agrupación deportiva o sociedad deportiva de capital. |
| 2. Halaber, ezingo dira batera bete Bizkaiko Montaña Federazioaren zuzendari-kargua eta Euskadiko Mendizale Federazioaren zuzendari-kargua, Bizkaiko Mendizale Federazioan presidentetza duen pertsonaren kasuan izan ezik. | 2. Tampoco se podrá ostentar simultáneamente el cargo de directivo o directiva de la Federación Bizkaina de Montaña y de la Federación vasca de Montaña, salvo en el supuesto de la persona que ostente la Presidencia de la Federación Bizkaina de Montaña. |
| 24. artikulua. Hautagarriak | Artículo 24. Elegibles |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SSV0-GQ9E-5OQB-XFH1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| 1. Hautagarriak dira pertsona fisiko federatuak (kirolariak, entrenatzaileak eta epaileak), hauteskunde-errolda onestean hemezortzi (18) urtetik gorakoak badira edo urte horretan federatuak izatea. | 1. Serán elegibles las personas físicas, sean deportistas, entrenadores o entrenadoras, jueces o juezas, mayores de dieciocho (18) años en el momento de aprobación del censo electoral, que sean federadas en el año en curso. |
| 2. Era berean, pertsona juridiko gisa hautagarriak dira kirol-klubak, kirol-elkarteak eta kapitaleko kirol-sozietateak, batzar nagusian badaude. Halakoetan, pertsona juridikoen presidenteak edo modu frogagarrian ordezkaritza ziurtatzen duen pertsonak ordezkatuko ditu. | 2. Igualmente serán elegibles, como personas jurídicas, los clubes, deportivos, agrupaciones deportivas o sociedades deportivas de capital que resulten ser miembros de la Asamblea General, quienes serán representados, bien por quienes ostenten la Presidencia de dichas personas jurídicas o bien por las personas que acrediten fehacientemente dicha representación. |
| 3. Pertsona juridikoen ordezkaritza ziurtatzeko nahikoa izango da kirol-klubaren, kirol-elkartearen edo kapitaleko kirol-sozietatearen idazkariak egindako ziurtagiria aurkeztea, presidenteak ontzat eman ostean. Ziurtagirian idatziz jasota egongo da nor den presidentea edo xede horretarako nor izendatu duten kirol-erakundeko ordezkari. | 3. A fin de acreditar la representación de las personas jurídicas será suficiente con aportar una certificación expedida por el Secretario o Secretaria del club deportivo, agrupación deportiva o sociedad deportiva de capital, que cuente con el Visto Bueno de la Presidenta o Presidente, en el que se haga constar quien ostenta la Presidencia o quien ha sido designado representante de la entidad deportiva para este fin. |
| 25. artikulua. Hautagai-zerrendak aurkezteko epea | Artículo 25. Plazo de presentación de candidaturas |
| Hautagai-zerrendak ZAZPI (7) egun naturalen buruan aurkeztuko dira, batzar nagusiko kideak behin-betiko izendatzen diren unetik. | El plazo para presentar candidaturas será de SIETE (7) días naturales a contar desde la proclamación definitiva de los integrantes de la Asamblea General. |
| 26. artikulua. Hautagai-zerrendak aurkezteko modua | Artículo 26. Forma de Presentación de candidaturas |
| 1. Hautagai-zerrendak hauteskunde-batzordeak modu ofizialean onetsitako | 1. Las candidaturas deberán presentarse en el impreso que resulte aprobado oficialmente por |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SSV0-GQ9E-5OQB-XFH1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| inprimakian aurkeztuko dira xede horretarako ematen den epean. | la Junta Electoral y dentro del plazo establecido al efecto. |
| 2. Hauteskunde-batzordeak ofizioz egiaztatuko du hautagai guztiek agintaldiak mugatzeari buruz federazioaren arauak betetzen dituzten, presidentetzan diharduenak bidali duen dokumentazioarekin bat etorriz. | 2. La Junta Electoral verificará, de oficio, si todos y cada uno de las personas que las componen cumplen las normas federativas sobre limitación de mandatos conforme a la documentación que le deberá remitir quien ejerza la Presidencia. |
| 3. Zuzendaritza-batzordeko hautagai-zerrendak zerrenda itxiak osatuko dituzte. Zerrendak kide guztiek sinatuko dituzte, eta aurkeztu ondoren, ezingo dira aldatu. Ordezkoak izan ahalko dituzte aurkezten direnetik izendatu arte balizko bajak betetzeko. | 3. Las candidaturas de Junta Directiva, que se presentarán en la modalidad de listas cerradas, deberán ir firmadas por la totalidad de sus integrantes, y no podrán ser modificadas después de presentadas, pudiendo contar con personas suplentes para cubrir las eventuales bajas que se produzcan desde su presentación hasta la fecha de la proclamación. |
| 4. Zuzendaritza-batzorderako hautagai-zerrendetan dauden kideei dagokienez, emakumeen eta gizonen arteko ordezkaritza orekatua izango da. Ordezkaritza orekatutzat joko da bi sexuek gutxienez % 40ko ordezkaritza dutenean. Hauteskunde-prozesuaren indarreko denboraldian emakumeen edo gizonen lizentzia federatuak % 40tik beherakoak badira, nahikoa izango da sexu minoritarioaren ordezkaritzak lizentzia federatuen ehunekoa berdintzea edo gaintzea. | 4. Las candidaturas de Junta Directiva, en cuanto a las personas físicas integrantes, deberán tener una representación equilibrada de mujeres y hombres. Se considerará que existe una representación equilibrada cuando los dos sexos estén representados al menos al 40%. Si las licencias federativas correspondientes a mujeres u hombres en la temporada vigente del proceso electoral sean inferiores al 40 % será suficiente con que la representación del sexo minoritario iguale o supere el porcentaje de licencias federativas correspondiente al mismo. |
| 5. Zuzendaritza-batzorderako pertsona fisikoen estamentu baten hautagai-zerrendak pertsona bat baino gehiago badu, halabeharrez estamentu horren emakume- eta gizon-ordezkaritza izango da. | 5. En el supuesto de que un estamento de personas físicas esté representado en una candidatura a Junta Directiva por más de una persona física, deberá existir necesariamente una representación masculina y femenina de ese estamento. |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SSV0-GQ9E-5OQB-XFH1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| 27. artikulua. Hautagai-zerrendak onestea | Artículo 27. Admisión de candidaturas |
| 1. Hautagai-zerrendak aurkezteko epea amaitzen denean, hauteskunde-batzordeak BI (2) egun baliodunekoepean aurkeztu diren hautagai-zerrendak onargarriak diren erabakiko du. | 1. Concluido el plazo de presentación de candidaturas, la Junta Electoral resolverá sobre la admisibilidad de las candidaturas presentadas en el plazo de DOS (2) días hábiles. |
| 2. Hautagai-zerrendaren batek zuzen daitezkeen akatsak baditu, hautagai-zerrendako buruari errekerimendua egingo zaio BI (2) egun baliodunetan akats horiek zuzen ditzan. | 2. Si alguna candidatura contuviere errores que resulten subsanables se requerirá a la persona que encabece la misma para que proceda a su subsanación en el plazo de DOS (2) días hábiles. |
| 3. Zuzendaritza-batzorderako hautagai-zerrenda bakarra dagoenean, ez da bozketarik egingo, eta hauteskunde-batzordeak hauteskunde-zerrenda hautatua izendatuko du. | 3. Cuando exista una sola candidatura a la Junta Directiva no será necesaria la celebración de votación y la Junta Electoral procederá a proclamarla como la candidatura electa. |
| 28. artikulua. Artekariak | Artículo 28. Interventores e interventoras |
| 1. Hautagaiek edozein pertsona fisikori eman diezaiokete ahalordea, baldin eta adin nagusikoa bada eta gaitasun eta eskubide guztiak baditu, artekari gisa, hauteskunde-egintzetan ordezkaritza izateko. | 1. Las personas candidatas podrán otorgar poder a favor de cualquier persona física, mayor de edad y en plenitud de sus facultades y derechos, para que ostente, en calidad de interventora, su representación en los actos electorales. |
| 2. Ahalordetzea fede-emaile publikoaren edo Bizkaiko Mendizale Federazioko Idazkaritza duen pertsonaren aurrean emango da. | 2. El apoderamiento deberá realizarse ante un fedatario público o ante la persona que ostente la Secretaría de la Federación Bizkaina de Montaña. |
| 3. Bere eginkizuna bozketaren eta boto-kontaketaren egintza ikustea baino ez da izango, eta aktan hauteskunde-egintzaren garapenari buruz bere adierazpenak idatziz jasota gelditzeko eskubidea izango du. Gainera, bozketaren eta boto-kontaketaren gainean egokitzat jotzen dituen erreklamazioak egin ahalko ditu. | 3. Su función se limitará a presenciar el acto de la votación y del escrutinio, con derecho a que se recojan en el acta correspondiente las manifestaciones que desee formular sobre el desarrollo del acto electoral, así como a efectuar las reclamaciones que considere procedentes en relación a la votación y escrutinio. |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SSV0-GQ9E-5OQB-XFH1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| 4. Artekariek izaera hori egiaztatu beharko diote hauteskunde-mahaiari ahalordetzea eta nortasun agiri nazionala, pasaportea edo pareko identifikazio-dokumentua erakutsiz. Hauteskunde-mahaiak bozketa eta boto-kontaketa egingo diren lokalean egoten utziko die. | 4. Los interventores e interventoras deberán acreditar su condición ante la Mesa Electoral exhibiendo el apoderamiento y el Documento Nacional de Identidad, pasaporte o documento identificativo análogo. La Mesa Electoral les permitirá permanecer en el local donde se desarrollen la votación y el escrutinio |
| 29. artikulua. Hautagai-zerrendarik eza | Artículo 29. Falta de candidaturas |
| 1. Hautagai-zerrendarik ez badago, hauteskunde-batzordeak epe berri bat ezarriko du hautagai-zerrendak aurkezteko. | 1. En el supuesto de no presentarse candidatura alguna, la Junta Electoral volverá a abrir un nuevo plazo de presentación de candidaturas. |
| 2. Bigarren epe hori amaitzen denean hautagai-zerrendarik aurkezten ez bada, hauteskunde-batzordeak Bizkaiko Mendizale Federazioko jarduneko Presidentetzan diharduenari egoera jakinaraziko dio, ezohiko batzar nagusirako deialdia egin dezan. Helburua da Bizkaiko Mendizale Federazioa desegitea. | 2. En el supuesto de que tampoco se presenten candidaturas tras el transcurso de este segundo plazo, la Junta Electoral comunicará dicha situación a quien ejerza la Presidencia en funciones de la Federación Bizkaina de Montaña al objeto de que convoque una Asamblea General Extraordinaria con el fin de acordar la disolución de la Federación Bizkaina de Montaña. |
| 30. artikulua. Hauteskundeetarako batzar nagusia | Artículo 30. Asamblea General de elecciones |
| 1. Hautagai-zerrendak behin betiko onesten direnean, jarduneko presidenteak batzar nagusirako deialdia egingo du legez osatu eta hautagai-zerrendak bozkatze aldera. | 1. Admitidas definitivamente las candidaturas, la Presidenta o Presidente en funciones convocará a la Asamblea General para su constitución formal y proceder a la votación de las candidaturas. |
| 2. Deialdia egingo da, nahiz eta dagoeneko hauteskunde-egutegian bertan aurrez ikusita egon. | 2. La convocatoria se realizará aunque ya se encuentre prevista en el propio calendario electoral. |
| 31. artikulua. Bozketa | Artículo 31. Votación |
| 1. Batzar nagusia osatu eta hauteskunde-mahaiko presidenteak bilkura hasitzat jotzen | 1. Constituida la Asamblea General y abierta la sesión por la Presidencia de la Mesa Electoral, |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SSV0-GQ9E-5OQB-XFH1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| duenean, zerrendako buru den hautagai bakoitzak hitza hartzeko aukera izango du, eta gehienez HAMABOST (15) minutuz bere programa defendatuko du. | cada persona candidata que encabece una lista podrá hacer uso de la palabra para defender su programa por un tiempo máximo de QUINCE (15) minutos. |
| 2. Esku-hartzeak amaitzen direnean, bozkatze aldera, hauteskunde-mahaiko presidenteak hurrenkera alfabetikoari erreparatuz izenez deituko du batzar nagusiko kide bakoitza, hautatu nahi duen hautagai-zerrendaren boto-papera xede horrez egokitu den hautetsontzian botatzeko. | 2. Una vez finalizadas las intervenciones y con el fin de efectuar la votación, la Presidencia de la Mesa Electoral llamará nominalmente, por orden alfabético, a cada miembro de la Asamblea general para depositar la papeleta de la candidatura elegida en la urna habilitada al efecto. |
| 3. Batzar nagusiaren barruan bozketa zehatzen isilpea bermatze aldera, neurri teknikoak hartuko dira kirol-klub bakoitzak bere botoa isilpean mantentzeko. | 3. Al objeto de garantizar el carácter secreto de determinadas votaciones en el seno de la Asamblea General se arbitrarán medidas técnicas que permitan a cada club deportivo mantener su voto secreto. |
| 4. Bozkatzeko hauteskunde-batzordeak emandako boto-paper ofiziala erabiliko da, eta hauteslearen nortasuna egiaztatzeko nortasun-agiri nazionala, pasaportea, gidabaimena edo beste antzeko identifikazio-dokumentu bat aurkeztuko da, bozketetan ordezkatzen edo ahalordea duen erakundearen legezko ordezkaritzaz gain. Hala, ziurtagiria erantsiko da, erakundeko idazkariak egin eta presidenteak ontzat eman ostean. Helburua da bozketetarako erakundearen legezko ordezkaritza edo ahalordea duena egiaztatzea. | 4. El voto se efectuará mediante la papeleta oficial proporcionada por la Junta Electoral, debiéndose acreditar la personalidad del elector con la presentación del documento nacional de identidad, pasaporte, permiso de conducción u otro documento análogo que le identifique y la representación legal de la entidad a la que representa o de quien ha recibido el apoderamiento para las votaciones. A tal fin presentarán una certificación, expedida por el Secretario o Secretaria de la entidad, con el Visto Bueno de la Presidenta o Presidente, acreditativa de quien ostenta la representación legal de la entidad o de quien ha recibido el apoderamiento para las votaciones. |
| 5. Hori dela eta, hauteskunde-batzordeak kirol-klubei, kirol-elkarteei eta kirol arloko sozietate anonimoei boto haztatuaren | 5. A tal fin, los clubes, agrupaciones deportivas y sociedades anónimas deportivas recibirán de la Junta Electoral el número de papeletas |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SSV0-GQ9E-5OQB-XFH1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| araberako boto-paperak bidaliko dizkie, estatutuetan hala aurrez ikusten bada. | correspondiente a su voto ponderado, si estuviera previsto en los estatutos. |
| 6. Izapide hori betetzen denean, boto-emaile bakoitzak bere boto-papera edo boto-paperak hauteskunde-mahaiari entregatuko dizkio hautetsontzian sartzeko. | 6. Cumplimentado dicho trámite, cada votante entregará la papeleta o papeletas a la Mesa Electoral quien introducirá las mismas en la urna correspondiente. |
| 7. Batzar nagusiaren barruan ez da onetsiko botoa eskuordetzea, ez eta posta bidezko botoa ematea ere. | 7. No se admitirá en el seno de la Asamblea General la delegación de voto, ni el voto por correo. |
| 8. Kirol-klub baten pertsona fisikoak ezingo du inolaz ere beste kirol-klub baten ordezkaritzarik izango. | 8. Ninguna persona física representante de un club deportivo podrá ostentar la representación de otro club deportivo. |
| 32. artikulua. Boto-kontaketa | Artículo 32. Escrutinio |
| 1. Bozketaren egintza amaitzen denean, hauteskunde-mahaiak boto-kontaketari ekingo dio. | 1. Finalizado el acto de la votación se procederá al escrutinio de los votos por parte de la Mesa Electoral. |
| 2. Boto baliogabeak izango dira hauteskunde-batzordeak onetsi dituen gutun-azal edo boto-paper ofizialetan ematen ez direnak, bai eta gutun-azalik gabeko boto-paperetan emandakoak ere. Azkenik, gutun-azaletan zenbait hautagai-zerrendaren paper-botoak ere baliogabetzat joko dira. Gutun-azalek hautagai-zerrendaren boto-paper bat baino gehiago badute, boto baliodun bakar gisa zenbatuko da. | 2. Serán nulos los votos emitidos en sobres o papeletas diferentes del modelo oficialmente aprobado por la Junta Electoral, así como los votos emitidos en papeletas sin sobre o en sobres que contengan más de una papeleta de distinta candidatura. En el supuesto de que los sobres contengan más de una papeleta de la misma candidatura se computará como un solo voto válido. |
| 3. Halaber, boto baliogabeak izango dira, boto-paperetan hautagai-zerrendako izenak aldatu, erantsi, markatu edo urratu badira edo beren ordena aldatu bada. Gauza bera gertatuko da beste edozein aldaketa egonez gero. | 3. Serán también nulos los votos emitidos en papeletas en las que se hubiera modificado, añadido, señalado o tachado nombres comprendidos en ella o alterado su orden de colocación, así como aquellas en las que se hubiera producido cualquier otro tipo de alteración. |
| 4. Boto zuritzat joko da gutun-azalean boto- | 4. Se considerarán votos en blanco aquellos |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SSV0-GQ9E-5OQB-XFH1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| paperik ez badago edo boto-paper zuria ageri bada. | sobres que no contengan papeletas o con papeletas en blanco. |
| 33. artikulua. Hauteskundeen emaitzak | Artículo 33. Resultados electorales |
| 1. Boto baliodunen gehiengo soila lortzen duen hautagai-zerrenda izango da irabazlea. | 1. Resultará ganadora la candidatura que hubiera obtenido la mayoría simple de los votos válidos. |
| 2. Bizkaiko Mendizale Federazioaren Presidentetza pertsona fisikoak hartuko du, hain zuzen ere, hautatu izan den hautagai-zerrendako buruak. | 2. Ostentará la Presidencia de la Federación Bizkaina de Montaña aquella persona física que encabece la candidatura en la candidatura que haya resultado elegida. |
| 3. Bi hautagai-zerrendek edo gehiagok boto berdinak lortu badituzte, berriz bozkatuko da hauteskunde-batzordeak zehazten duen gehieneko epean. Bozketa berrian boto berdinak eskuratu dituzten hautagai-zerrendek bakarrik parte hartuko dute. | 3. En caso de empate de votos entre dos o más candidaturas se celebrará una nueva votación en el plazo máximo que determine la Junta Electoral. En la nueva votación únicamente participarán las primeras candidaturas con igualdad de votos. |
| 4. Berdinketa hausten ez bada, emakumeak buru diren hautagai-zerrendak hautatuko dira. Hala ere, oraindik berdinketa badago, hauteskunde-batzordeak, gehienez, ZAZPI (7) egun naturalen buruan, berdindutako hautagai-zerrenden artean zozketatuko du. | 4. Si persiste el empate, resultará elegidas las candidaturas encabezadas por mujeres. Si persiste el empate, la Junta Electoral procederá, en el plazo máximo de SIETE (7) días naturales, a un sorteo entre las candidaturas empatadas. |
| 34. artikulua. Boto-kontaketaren akta | Artículo 34. Acta del escrutinio |
| 1. Bozketa amaitzen denean, hauteskunde-mahaiak boto-kontaketaren akta idatziko du, hauteskunde-batzordeari ahalik eta lasterren bidaltzeko boto-paperekin batera. | 1. Desarrollada la votación, la Mesa Electoral redactará el acta del escrutinio al objeto de que sea remitida a la mayor brevedad, junto con las papeletas de voto, a la Junta Electoral. |
| 2. Hauteskunde-zerrendetako artekariek eta zaintza-administrazioek dokumentuaren ziurtagiria eskuratu ahalko dute, hala eskatuz gero. | 2. Las y los interventores de las candidaturas, así como de las Administraciones de tutela, tendrán derecho a obtener una certificación de dicho documento, si así lo solicitan. |
| 3. Hauteskunde-batzordeak boto-kontaketaren emaitzak eta bozketaren gorabeherak dituen akta jasotzen duenean, | 3. La Junta Electoral, recibida el acta con los resultados del escrutinio y con las incidencias de la votación, proclamará provisionalmente a |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SSV0-GQ9E-5OQB-XFH1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| behin-behinekoz izendatuko ditu presidente hautagai-zerrendako burua eta zuzendaritza-batzordeko kide gainerakoak. | quien encabece la candidatura ganadora como Presidente o Presidenta y a los miembros de la Junta Directiva. |
| 4. Hautagai irabazleak behin-behinekoz izendatu ostean eta, bidezkoa bada, aurkeztu diren erreklamazioak edo errekurtsoak ebatzi ondoren, behin betiko izendatuko dira. Harrezkero, kargu hautatuek beren eginkizunetan jarduteko aukera izango dute kargua hartzeko bestelako legezko egintzarik gabe. | 4. Una vez proclamadas provisionalmente las candidaturas ganadoras, y resueltas, en su caso, las reclamaciones o recursos presentados, se realizará la proclamación definitiva. A partir de este momento, los cargos electos podrán ejercer sus funciones sin necesidad de acto formal de toma de posesión. |
| HIRUGARREN TITULUA<br>HAUTESKUNDE-EGUTEGIA | TÍTULO TERCERO<br>CALENDARIO ELECTORAL |
| 35. artikulua. Hauteskunde-mugarriak | Artículo 35. Hitos electorales |
| Hauteskunde-egutegia egiteko orduan, honako hauteskunde-mugarri hauei erreparatuko zaie:<br>a) Hauteskundeetarako deialdia<br>b) Batzar nagusiko kideak izendatzea<br>c) Hautagai-zerrendak aurkeztea<br>d) Hautagai-zerrendak onestea<br>e) Hautagai-zerrendak zuzentzea<br>f) Bozkatzeko batzar nagusia<br>g) Emaitzak adieraztea<br>Hauteskunde-organoen aurrean errekurtsorako epeak | A la hora de confeccionar el calendario electoral deberán atenderse a los siguientes hitos electorales:<br>a) Convocatoria de elecciones<br>b) Proclamación de los integrantes de la Asamblea General<br>c) Presentación de candidaturas<br>d) Admisión de candidaturas<br>e) Subsanación de candidaturas<br>f) Asamblea General para la votación<br>g) Proclamación de resultados<br>h) Plazos de recurso ante los distintos órganos electorales. |
| 36. artikulua. Errekurtsoen ondoreak | Artículo 36. Efectos de los recursos |
| 1. Errekurtsoek ez dute hauteskunde-egutegia etengo. | 1. Los recursos no suspenderán el transcurso del calendario electoral. |
| 2. Errekurtsoak denbora nahikoaz ebaztea bideragarria ez denean hauteskunde-prozesuak ohiz jarraitzeko, hauteskunde-batzordeak hauteskunde-egutegia egoerara moldatu ahal izango du. | 2. De no ser viable la resolución de los recursos al tiempo suficiente para continuar con normalidad el procedimiento electoral, la Junta Electoral tendrá potestad para ajustar el calendario electoral a esta situación. |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SSV0-GQ9E-5OQB-XFH1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| LAUGARREN TITULUA<br>ERREKURTSOEN ARAUBIDEA | TÍTULO CUARTO<br>RÉGIMEN DE RECURSOS |
|---|---|
| 37. artikulua. Hauteskunde-batzordearen erabakiak | Artículo 37. Acuerdos de la Junta Electoral |
| 1. Hauteskunde-batzordearen erabakien aurka, lehenengoz, bi (2) egun baliodunetan hauteskunde-batzordearen beraren aurrean errekurtsoa jar daiteke. Epea jakinarazpena jaso edo, hala badagokio, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasiko da. | 1. Contra las decisiones de la Junta Electoral se podrá interponer recurso en primera instancia ante la propia Junta Electoral, en el plazo de dos (2) días hábiles. Dicho plazo se contará desde el siguiente a su notificación, o en su caso, publicación. |
| 2. Epea errekurtsorik jarri gabe igarotzen bada, erabakiak ala ebazpenak irmoak izango dira. | 2. Transcurrido dicho plazo sin haber sido interpuesto recurso, los acuerdos o resoluciones serán firmes. |
| 3. Hauteskunde-batzordeak lau (4) egun baliodun ditu jarri diren errekurtsoak ebazteko. | 3. La Junta Electoral resolverá en el plazo de cuatro (4) días hábiles los recursos que se le hayan interpuesto. |
| 4. Errekurtsoen ebazpenak zazpi (7) egun naturaleko epez Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean aurkaratu daitezke. Epea aurreko moduan hasiko da zenbatzen. | 4. Las resoluciones de dichos recursos serán recurribles ante el Comité Vasco de Justicia Deportiva en el plazo de siete (7) días naturales, contados de igual forma que en la instancia anterior. |
| 38. artikulua. Hauteskunde-mahaiaren erabakiak | Artículo 38. Acuerdos de la Mesa Electoral |
| Hauteskunde-mahaiaren erabakiak hauteskunde-batzordearen aurrean aurkaratu ahalko dira, eta bi (2) egun baliodun izango dira horretarako. Epea jakinarazpena jaso edo, hala badagokio, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasiko da. | Los acuerdos adoptados por la Mesa Electoral serán recurribles ante la Junta Electoral en el plazo de dos (2) días hábiles. Dicho plazo se contará desde el siguiente a su notificación, o en su caso, publicación. |
| 39. artikulua. Gai erkideak | Artículo 39. Cuestiones comunes. |
| 1. Hauteskunde-batzordearen edo hauteskunde-mahaiaren aurrean kontra egiteko legeztatuta egongo dira pertsona | 1. Estarán legitimados para recurrir ante la Junta Electoral o la Mesa Electoral todas aquellas personas, físicas o jurídicas, cuyos |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SSV0-GQ9E-5OQB-XFH1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| fisiko edo juridiko guztiak, baldin eta organo horiek emandako erabakiek edo ebazpenek beren legezko eskubideak edo interesak ukitzen badituzte. | derechos o intereses legítimos se encuentren afectados por los acuerdos o resoluciones dictados por dichos órganos. |
| 2. Organo baten aurrean errekurtsoa aurkezten denean, organo horrek beharrezkotzat jotzen dituen txostenak eska ditzake, eta erabakia edo ebazpena baietsiz gero legezko eskubideak edo interesak ukituta ikus ditzaketen pertsonei entzuteko aukera izango du. | 2. El órgano ante el que se hubiera presentado el recurso podrá recabar los informes necesarios y oír a las personas cuyos derechos o intereses legítimos pudieran resultar afectados por su eventual estimación. |
| 3. Luzatu gabe, Federazioko administrazio-zerbitzuek errekurtsoak jasotzen dituztenean, hauteskunde-batzordeari helaraziko dizkiote, jatorrizko espedientearekin, interesdunek aurkeztutako alegazioekin eta, hala balego, bere txostenarekin batera. | 3. Sin mayor dilación, una vez recibido los recursos por los servicios administrativos de la Federación los elevarán a la Junta Electoral, junto con el expediente original, las alegaciones presentadas por los interesados, y su propio informe, si lo hubiere. |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SSV0-GQ9E-5OQB-XFH1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus